

mikel lizarralde

Musikari beterranoek osatzen dute Sin Red Beasaingo taldea. Estilo askotako taldeetan aritu dira Luismak (ahotsa eta gitarra erritmikoa), Aitzol (baxua eta ahotsak), Txema (gitarra), Fredi (pianoa eta organoa) eta Aitor (bateria), baina bostek musika beltzarekiko eta rock & rollarekiko duten zaletasunak elkartu zituen orain dela urte pare bat. «Esperientzia handia dugu denok, baina musika giro ezberdinetatik gatoz. Aitor thrash-metaletik dator, Txema heavy-tik, Fredi jazzetik eta musika klasiko-tik, Aitzol rock alternatibotik...», dio Luismak. Berak eta Txemak jarri zuten abian Sin Red, orain dela bost urte, baina gainerako kideek bi urte baino ez daramatzate taldean. Aitzol eta Aitor 99ko maiatzean gehitu zitzaizkien, eta orduan hartu zuen benetako abia da Sin Redek. «Taldea osatu, eta zazpi-zortzi hilabetez lanean jardun ondoren, iazko maiatzean aurkezpen ofiziala egin genuen, Anoetako Cheyenne aretoan». Lehenengo kontzertu hark gauza askotarako balio izan zien, baina batez ere, gaur egun taldean ezinbestekoa den organo jolea berengana biltzeko: «Fredi han zegoen, eta asko gustatu zitzaion ikusitakoa. Hala, kontzertua amaitu ondoren, gurekin jotzeko proposamena egin zigun».

Lau kantuko maketa kaleratu zuen

Sin Red Bluesaren sarean



Sin Red, Carlos Segarra, Red House eta Mal de Ojo
Beasaingo Antzizar kiroldegian...
Larunbatean, 22:30ean

taldeak orain dela hilabete gutxi. Entsegu lokalean grabatu zuten, eta soinu oso ona ez izan arren, taldearen izaera islatzen du. Rhythm & bluesa eta rock & rolla da nagusi lan horretan, horiek baitira taldekideak batzen dituzten estiloak: «70eko hamarkadako rockak asko eragin du taldean, baina baita The Rolling Stonesek, Elvis Presleyk, Stevie Rayk Vaughnek... ere. Maketan R&B kantuk sartu ditugu, baina beste abesti batzuetan bestelako joerak (popa, jazz) ere uz-

tartzen ditugu. Sin Red ez da estilo jakin batera mugatutako taldea».

Euskal Herrian ez dago musika beltza, bere esanahi klasikoenean, jorratzen duen talde askorik, eta gutxitan entzun daiteke zuzenean bluesa. Egoera horretan leku egin nahian dabil Sin Red: «Rock & rolla eta bluesa nahiko baztertuta daude. Sustraia musika denez, sistemaren kontra doa, sistema horretan nagusitzen den musikak ez duelako sentimendurik».

Asteburu honetan bere ibilbide laburreko kontzerturik garrantzitsuen eskainiko du. Beasainen antolatu duten Udaberri gaztearen barruan, rock jaialdia egingo dute larunbatean Antzizar kiroldegian, eta Sin Redez gain, Mal de Ojo, Carlos Segarra (Los Rebeldes taldekoa) eta Red House ariko dira (CQC telebista saioan gitarra jotzen duen Francisco Simonen taldea).

nora arbelbide

Joan den larunbatean, Kolpe-k taldeak Paueko Art Brut KFE salan jo zuen. Ez zen edozein kontzertu izan, Ultrasons lehiaketa ezagunaren finalerdietarako aritu ziren hain zuzen. Musika anplifikatua jotzen duten gazteentzat *Sud Ouest*-ek antolatu lehiaketa da hori. Finalera heltzen direnak estudio batean aste batez grabatzeko aukera daukate, eta irabazleari konpaktu bat grabatzen zaio.

Gau hartan, 40 gradu salan,

Kolpe-k

hirurehun bat lagun gelan, tinki-tinki, haien artean Kolpe-karen zale batzuk. Haien aurka, Okploide talde biarnesa eta Swad talde landestarra aritu ziren, irabazteko gogo handiarekin etorriak. Kontzertu gaua Wanpas talde ezagunak burutu zuen. Okploide taldeak irabazi zuen.

Kolpe-k, Swad taldearen ondoren, finaletik kanpo gelditu zen. Baina irabazi ez bazuten ere, ez dute horren beharrik beren ahalmenak frogatzeko. Uztartze aldekoak diren Eneko baxu jolea, Patxi kantaria, Peio bateria jolea eta Xabi gitaristak osatzen duten taldea ez da horretan gelditzekotan.

Nolaz zuek Pauen?

Maketa bat igorri genuen, iragarki bat ikusi ondoren. Gazte Leiho lehiaketan parte hartu genuen iaz eta lehen hamarretan atera ginen. Oraingoan finalerdietarako aukeratuak izan gara.

Lehen euskaldunak ote?

Duela hiru urte Zapozain taldea izan zen finalerdietan. Horrek go-go eman zigun hara joateko. Geroztik ez da euskaldunik izan gu iritsi arte. Haatik, ez da behin ere euskaldunik heldu finalera.

Giroa nolakoa iduritu duzu?

Oro har giro ona zen, kontzertu ona izan zen. Jendea mugitzen zen. Plazer hartu dugu jotzean. Normalki, herrietan jokatzen dugu. Hemen ezberdina zen; beste giro bat zen.

Ardura ari zarete kontzertuetan jotzen?

Orain dela urte bat eta erdi

hasi ginen Kolpe-k taldearekin plazatik plazara. Orotara, hogeitahogeita hamar bat kontzertu jo ditugu. Gehienak Ipar Euskal Herrian. Besteak beste, Herri Urratsen, iaz Aberri Egunean eta gehienetan herriko beste-tan.

Musikaren mundua aspalditik eza-gutzen duzue, beraz?

Peio, Xabi eta ni kolegioan hasi ginen. Gero, 1995ean sortu

«Hegoaldeko gaztetxetan gehiago jotzea da gure helburua»

Kontzertu andana bat egin baduzue ere, ez dituzue oraindik leku guztiak zeharkatuak?

Mementokotz, bakarrik hiru aldiz ari izan gara hegoaldean. Eta geroari begira, gure helburuetatik bat bertako gaztetxetan gehiago jotzea litzateke.

Orain arte taldea bakarrik kon-

gaizka



genuen Patxi eta Eñautekin Etengabe taldea. Eñaut joan eta Patxi hartu zuen haren lekua, hor sortu zen Kolpe-k.

Nolakoa da zuen musika?

Jotzen dugun musika, *metal fusio* gisakoa da. Rage Against the Machine, Prodigy, eta beste holako taldeetan dugu aurkitzen inspirazioa.

tzertuen bidez entzuten ahal da. Geroari begira konpakturik izanen ote da?

Hasi gara konpaktu bat grabatzen, Angeluko etxe bati esker, maketa egin dugun leku berean, baina ez da oraindik ateratzekotan. Agian hemendik urte batera. Mementoan, label baten xerka gabiltza.

EUSKAL HERRIKO GAZTE ASANBLADEN 1. TOPAKETA APIRILAK 7 • USURBILEN

egitaraua

10etan:
TOPAGUNEARI ONGI-
ETORRIA (trikitilariak,
txalapartariak,
zanpantzarak...)

10' terdietan
EUSKAL HERRIKO
GAZTETXE ETA GAZTE
ASANBLADEN ARTEKO
BATZARRAK
GIDAREN AURKEZPENA

13' terdietan
BAZKARIA
• JATEKOA ZUK JARRI ETA
GUK EDATEKOA JARRIKO
DUGU
... ONDOREN:
PEPLETA GABI
KONTZERTU AKUSTIKOA

17etan
AZOKA
ALTERNATIBOAREN
IRIKIERA
(gazte asanbladen
materiala, maketak, KD,
2. eskuko erroa,
pegatak...)

17:01etan
HERRI KIROLAK.
TALDEEN ARTEKO HERRI
PROBAK

17:02etan
BIDEO EMANALDIAK.
GAZTETXEEN
HISTORIAREN
INGURUKO BIDEOEN
EMANALDIA

19' terdietan
TRIKI-BERTSO POTOE
HERRIKOIA

21etan KONTZERTU MUNDIALA

- ODIO - KI-SAP (SKA-BALENTZIARRA)
- ARRISKUA - ASGARTH
- KAOTIKO - LISABÖ

500 pza
Sarrera
bertan